



ABALTZISKETA

IRAGARKIA

Gipuzkoako Udal Ogasunak arautzen dituen uztailak 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.1 artikulua agindutako jendaurreko informazio epea amaitu denez eta epe horretan ez denez inolako zuzenketa eske edo oharkizunik aurkeztu, finko eta behin betikoak bihurtu dira Udal Batzarrak 2007ko urriaren 25ean hartu zituen behin behineko erabakiak Udal izaerako zenbait tributuren ordainarazpena arautzen duten Ordenantzak aldatzeari, 2008ko urtarrilaren 1etik hasita.

1- 2008 urteko urtarrilaren 1etik aurrera, ondorengo Zergei buruzko Ordenantza fiskalen eranskina hauek aldatu dira:

1. Ondasun Higiezinaren zerga

Landalur zerga: Tipoa: %0,683

Hirilur zerga: Tipoa: %0,175

2. Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen zerga.

Eranskina:

<u>Ibilgailuaren potentzia eta mota</u>	<u>Euroak</u>
a) Turismoak:	
9 zaldi fiskaletik beherakoak	20,92
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	43,20
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	93,72
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	100,83
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	129,64
20 zaldi fiskaletik gorakoak	158,45



ABALTZISKETA

b) Autobusak:

21 plaza baino gutxiagoak	108,34
21etik 50 plazara bitartekoak	154,31
50 plaza baino gehiagoak	189,32

c) Kamioiak:

1000 kg. karga baliagarritik beherako kamioia	55,00
1.000tik 2.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	108,34
2.999tik 9.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	154,31
9.999tik gorako karga erabilgarria dutenak	192,89

d) Traktoreak:

16 zaldi fiskal baino gutxiagoak	22,95
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	34,97
25 zaldi fiskal baino gehiagoak	108,34

e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak:

1.000 baino gutxiago eta 750 kg. baino gehiago karga erabilgarria dutenak	22,95
1.000tik 2.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	34,97
2.999 kg.tik gorako karga erabilgarria dutenak	108,34

f) Bestelako ibilgailuak

Ziklomotoiak	5,75
125 cc.ra bitarteko motozikletak	5,75
125 cc.tik 250 cc.ra bitarteko motozikletak	9,84
250 cc.tik 500 cc.ra bitarteko motozikletak	19,69
500 cc.tik 1.000 cc.ra bitarteko motozikletak	42,12
1.000 cc.tik gorako motozikletak	78,80

2- 2008 urteko urtarrilaren 1etik aurrera Jardueren eta zerbitzu prestazioen gaineko tasen eranskin hauek aldatu dira:



ABALTZISKETA

1. Ura

(Ur kontsortzioak asanblean hartutako prezioak, sistema integralean).

2. Zaborra.

Etxeetakoa 15,37 euro urtean.

Ez etxeetakoa 103,53 euro urtean.

3. Hilerria.

Hilobiratzea, 10 urteko kontzesioa 396,16 euro.

Hezurtokia, 10 urteko kontzesioa 115,13 euro.

Gipuzkoako Udal Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 18.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, tipoak, kuotak, tarifak eta Ordenantzak finkatu eta aldatzea onesten duten akordio horien aurka, interesatuek errekurtsio kontentzioso-administratiboa tartekatu ahal izango dute Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenaren aurrean bi hilabeteko epean, akordio horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuz.

Dena dela, interesatu horiek aurkez dezakete, nahi bada eta kontentzioso-administratibo bidea baino lehen, Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomi-Administratiboaren aurrean erreklamazioa hilabeteko epean, aipatu akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu denetik aurrera kontatuz.

Abaltzisketan, 2007ko abenduaren 3an.

Alkateak

Jesus M^a Gorostidi Irazusta